

Eskoletan internet Wi-Fi antenen bidez?

- Zer da WiFi teknologia?

WiFi sareek edozein lekutatik kablerik gabe Internet konexioa izatea ahalbideratzen dute, beti ere, konexio gune batetik gertu bagaude. Gero eta ugariagoak dira sare honen parte diren lekuak, eta ondorioz uhin elektromagnetikoen igorpen puntu gehiago daude, kontrol eta antolaketa gabe gainera.

- Zein ondorio ditu?

Telefonia mugikorraren antenak osasunarentzat kaltegarriak dira. Antena hauek WiFi antenekin alderatzen baditugu, azken hauek erradiazio hirukoitza baino gehiago igortzen dute.

Enpresek, teknologia honek osasunean eragin ditzakeen ondorioen ziurtasun zientifikorik eta kezkatzeko arrazoirik ez dagoela dioten arren, ikerketek kontrakoa ziurtatzen dute. Erradiazio elektromagnetiko maila ezberdinekin eginiko ikerketen arabera, WiFiak igortzen duen erradiazio maila baino baxuagoarekin, pertsonetan eragin biologikoak aurkitu direla ondorioztatu da. Osasunean eragindako ondorioak oso kezkarriak dira: kromosometan kalteak, funtzio kognitiboan aldaketak, epe laburreko memoria eta kontzentrazio ahalmenean eraginak, edo minbizi kasuak.

Bereziki kezkarria da haurren esposizioa, garuna oraindik garatzen dagoelako eta burezorra meheagoa delako, erradiazio gehiago jasotzen dute.

Edonola ere, argi dago WiFi teknologiaren epe luzerako eraginak ez direla nahikoa aztertu.

- Zer eskatzen du ELAk?

ELA ez dago irakaskuntza zentroak teknologia berriz hornitzearen aurka, beti ere Prebentzio Printzipioa kontuan hartzen bada (ekintza konkretu baten ziurtasun zientifikorik egon ez arren, babes neurriak hartzea).

Europako Parlamentuak ere gai honen inguruan hitz egin du, erradiazio mailak altuegiak direla salatuz eta EBko herrialdeei onartutako erradiazio mailak berrikusi ditzaten eskatu die. Onartzen diren mailak gehiegizkoak dira eta jadanik badaude maila horiek gutxitzea erabaki duten herrialdeak.

Gaur egun ikastetxe gehienek badute kable bidezko Internet konexioa. ELAk kable sarea zabaltzea exijitzen du eta zentroetan WiFi antenarik ez jartzea. Horrela ez da ikaslegoaren eta langilegoaren osasuna arriskuan jarriko.



Hobe kable bidez.

ELA
EUSKAL SINDIKATUA